



## 30.192 ikaslek bertsolaritza eskolak jasoko dituzte ikastetxean

**Bertsozale Elkarteak irakasleak ariko dira horretan: 55 irakasle ibiliko dira batetik bestera eskola horiek ematen.**

Bizkar-zorroa bete bertso hasi da 2023-2024 ikasturtea ere. Bertsolaritzak hezkuntzan dituen onuretan sinetsita eta ikasgelan sartzeko helburuz, Bertsozale Elkarteak ikastetxeetan duen proiektua 513 eskolatan izango da aurten: eskola publiko, Ikastolen Elkarteak ikastetxe nahiz kristau eskolatan entzungo dira bertsoak beste ikasturte batez.

Horretan ariko dira lurralde osoko Bertsozale Elkarteak 55 irakasle; ikastetxe batetik bestera mugitu ohi dira irakasleok, neurri handiagoan edo txikiagoan bertsolaritza ikasleei ezagutarazteko. Guztira, 30.192 ikasle ariko dira bertsotan ikasturte honetan, 1.574 taldetan banatuta.

Hitzekin jolasteko jarduera are jolastiagoa egiteko, ikasmateriala

gogotik prestatzen du Bertsozale Elkarteak irakasle taldeak: ikas-liburuaz gainera, bertsoikasgela.eus webguneko baliabide digitalak eta bat-batean jarduteko karta jolasak ere eskura dituzte ikasle taldeek. Bertsolaritzaren didaktikan sakontzen dihardu irakasle taldeak, eta ikasturte honetan ere HUHEZlren eskutik formazio saioak jasoko dituzte hainbat irakasle.

### Bertso-eskolatan ere ikasturtea hasita


Ikastetxetik kanpo bertsotan jarraitu nahi duenak ere badu aukera. Euskal Herriko 118 herritan daude bertso-eskolak, baita Amerikako Estatu Batuetan ere onlineko eskola bat. Denetarik eskolak daude, helduenak

eta gazteenak kasu, eta bertsotan egiteaz harago, bertsolaritzari loturiko hamaika jarduera gauzatzen dituzte. 1.507 partaide elkartzen dira bertso-eskolatan; horietako 1.055 kide 18 urtetik beherako gazteak dira, eta 91 irakasle arduratzen dira talde hauen asteroko martxaz. Bertsoeskola.eus webgunean dituzte haiei zuzendutako baliabide didaktikoak.

Ziur etxetik hurbil izango duzula bertso-eskolaren bat. Interesa izanez gero, jarri harremanetan zure lurraldeko Bertsozale Elkartearekin eta lagunduko zaitugu gertuen duzuna topatzen eta harremanetan jartzen.



235 herri eta 513 ikastetxetan eskainiko da bertsolaritza Bertsozale Elkartearen bidez. //XDZ



**MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI**  
2023-10-04, Donostia.  
*Bertso Passion* jaialdia.

Doinua: *Misiolari baten moduan*

Bertso ta *passion*, zientzia eta hitz nahasketa kuriosoa zer da gure hau? Puska bat gazi eta puska bat gozoa tanta bat bihotz altxagarria tanta bat deserosoa gramo erdi bat injenio ta ausardi gramo osoa formula baten kabitzen ez den tximista bat da bertsoa.

\*Jaialdiko hautaketa, laster, Bertsoa.eus atarian.

# “Entsegu prozesuetan aktoreen ekarpenek antzezlanera irakurtzen dutela uste dut”

**Amets Arzallusek eta Uxue Alberdik etxearen inguruan egindako bertsoak abiapuntu hartuta, Teilatupean emanaldia sortu du Iraitz Lizarragak Lanku Kultur Zerbitzuen eskutik. Maren Basterretxea eta Uxue Alkorta ariko dira Lizarragaren gidaritzapean (zenbaitetan Maite Aizpurua ariko da Basterretxearen ordez). Hurrei zuzendutako emanaldia, Amasa-Villabonako Gurea antzokian estreinatuko da igandean. Entseguetan harrapatu dugu Lizarraga.**

Noiz hasi zinen Teilatupean ikuskizunarekin lanean?

2022ko udazkenean jaso nuen antzezlanera idazteko proposamena. Pare bat hilabete eman nituen etxearen ideari bueltaka, informazioa biltzen, ideiak jasotzen, bertsoak entzuten... 2023ko urtarrilean lehenengo zirriborroa idatzi nuen, eta hortik aurrera, aldaketa bat bestearen atzetik egiten aritu naiz entseguetan hasi arte. Ekainean bi astez egin genituen entseguak, eta uda ostean, irailean, berriz ekin diegu.

Hasieran buruan zeneukan horretatik emaitzara iritsi arte bilakaera handia egon da prozesuan?

Sekulakoa! Baina horixe da nire lan egiteko modua, eta horixe zen hasieratik planteatu nuen. Azken finean, ni ere aktore-sortzailea naiz, eta entsegu prozesuetan aktoreen ekarpenek antzezlanera irakurtzen dutela uste dut. Hasieratik argi nuen nik idatzitako gidoia aldatuz joango zela prozesu osoan zehar, ia azkeneko egunera arte. Antzezlanera zerbait bizia da, ekintzan oinarritua. Hori bai, momentu batean esan beharra daukazu... honaino! Listo! Daukagunarekin aurrera goaz.

Hamaika gairen inguruan hausnartzeko abiapuntua da etxea. Argi zenuen horrek izan behar zuela abiapuntua, edo hausnarketarako gaiak zehazterakoan burura etorritako irudia izan da etxearena?

Etxearen proposamena Lankutik etorri zitzaidan. Uxue Alberdik eta Amets Arzallusek egindako bertso sorta batzuen erreferentzia jaso nuen: biek oso modu ezberdinean jorrotzen zuten etxearen gaia. Berehala konturatu nintzen gaiak zituen aukerez: etxea aitzakia moduan hartuta hainbat gai landu daitezke. Zailena gai horien artean aukeratzea izan da!

Eta horretarako baliabide ugari jarri dituzue dantzan: txotxongiloak, argi-itzalen jolasak,... bertsoekin edo koplekin lan egiten ohituta zinen?

Bertso eta koplak gustuko ditut entzuteko, baina aitortu beharra daukat eskola garaitik ez nintzela aritu bertsoetan. Baina ausartu naiz... lotsa gutxiarekin... (kar, kar, kar). Esan beharra daukat, horretan Uxue Alkortaren laguntza izan dudala. Nik egindako bertsoak errepasatu eta zuzentzen lagundu dit.

Haurrentzako ikuskizunetan esperientzia handia daukazu, eta diziplina ezberdinetan gainera, izan antzezle modura, ipuin kontalari edota trapezioarekin. Publiko eskertua izaten da hurrena?

Ez nuke esango eskertua denik hitza. Hurrek egia esaten dute: obra batek funtzionatzen badu, zurekin daude, eta hori eszenatokitik nabaritu egiten da. Txarrena da funtzionatzen ez badu ere nabaritu egiten dela...ez da publiko erraza.

Lehen emanaldia urriaren 22an Amasa-Villabonako Gurea antzokian izango da. Urduri?

Oraindik ez. Urriaren 21ean hasiko naiz urduritzen... ala agian ez, auskalo! Nahiko lasaia naiz zentzu horretan. Egia da zuzendari paperean gutxiagotan egon naizela, eta ez dakit nola egongo naizen. Gogotsu... hori seguru.



**Estreinaldia: Urriak 22.** Amasa-Villabona. Gurea Antzokia

**Azaroak 17.** Lezo. Gezala Auditorium

**Azaroak 24.** Lemoa. Kotxepin Kultur Etxea

**Azaroak 25.** Orozko. Donibane Aretoa

**Azaroak 29.** Arrigorriaga. Lonbo Aretoa

**Abenduak 1.** Getaria. Kultur etxea

**Abenduak 3.** Antsoain. Antzokia

**Abenduak 19.** Basauri. Pozokoetxe Kultur Etxea



Lur eta Doro dira obran Maren Basterretxea eta Uxue Alkorta. //XDZ

# Banatu dugu aurtengo GrAL saria

**Jone Makazagaren Latinezko poesia bertsotan euskaratzeaz: itzulpen musikatua eta gogoeta lanak eskuratu du.**

UPV/EHuko Mikel Laboa Katedrak eta Bertsozale Elkarleak elkarlanean deitutako GrAL Saria esleitu berri dugu: aurkeztutako Gradu Amaierako Lanak aztertuta, Jone Makazaga Iruitiaren *Latinezko poesia bertsotan euskaratzeaz: itzulpen musikatua eta gogoeta* ikerlanari eman zaio saria. Gaur egungo bertsolaritzako eta pastoraletako moldeetara egokitu ditu autore latindarren poemak Makazagak. Virgilio, Ovidio, Martzial eta Senekaren idazlan hautatuek osatu dute ikerlanaren corpusa, eta askotariko doinu eta neurriak erabili ditu itzulpenetan. Topatutako zailtasunak eta emandako irtenbideak gehatu ditu; baliaitu dituen itzulpen estrategiak azaldu ditu eta poemak

bertsotan itzultzearen mugei buruz ere hausnartu du, horretan doinuak duen eragina ere aintzat hartuz.

600 euroko diru saria jasoko du Makazagak lanagatik. GrAL sariaren deialdiarekin batera, ikerketa proiektuen sarirako deialdia ere egin zen, baina banatu gabe geratu da hau.

Bertsozale Elkarleak - lehen urteetan Mintzolaren bidez- eta UPV/EHuko Mikel Laboa Katedrak elkarlanean dihardute 2013tik, besteak beste, bertsolaritzaren azterketa sustatzeko ikerketa deialdiak ateraz.

## Larunbatean erabakiko dira Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak

**Bizkaiko Bertsolari Txapelketari beste bi final laurden geratzen zaizkio asteburu honetakoaz gainera. Saio berri bat izango du Xilabak ere ostiralean.**

Bittori Elizalde, Endika Legarra, Eneko Lazkoz, Fernando Ziganda, Josu Sanjurjo eta Saats Karasatorre ariko dira larunbatean Nafarroako Bertsolari Txapelketako final laurdenean. Leitzan izango da saioa, 17:30etik aurrera, Ander Aranburuk aurkeztuta. Laugarren eta azken final laurdena izango da, eta honenbestez, hura amaitutakoan jakingo da hurrengo faseko saioetan nortzuek egingo duten bertsotan.

Asteburu honetakoaz gainera, beste bi final laurden geratzen zaizkio oraindik Bizkaiko Bertsolari Txapelketari. Igandean izango da hurrengo saioa Erandion, eta Ander Sarriugarte, Garazi Navarro, Igor Galarza, Imanol Uriá, Paule Ixiar Loizaga eta Unai Mendiburu izango dira lehian. Idoia Anzorandiak emango dizkie gaiak.

Gogoan izan bi txapelketetako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daudela eskuragai.

Taldeakoaan ari gara, berriz, Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan. Ostiralean saioa eginda, hurrengo bi asteburuetan finalaurrekoak izango dira sailkatutako taldeekin.

### Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketak

2024an izango da bertsolari arabarren txanda; urtearen hasieran izan ohi da Arabako Bertsolari Txapelketa. Aurretik, ordea, kanporaketa fase bat izaten da, eta udazkenean izango da hori: lau saio izango dira, eta lehendabizikoa ostiral honetan jokatuko da Izorian.



Lehendabizikoz Vianan izan da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. //XDZ





## Puntu jarrita

XALBAT ALZUGARAY

Leire, inspirazioa eguneroko gertakarietan edo ohituretan atzeman daiteke. Erranen nuke gai-jartzailearen zeregin nagusia dela gertakari hori gai bihurtzea. Bistan da, anitzetan, gure bizipenak eta hurbilen dugun errealitatea oholtzara eramaten dugula. Gai-jartzaileon lana "erraza" dela ere aditu izan dut usu. Ilbilde xume eta laburretik natorkizu baina zin dagizut gure lana papera irakurtzea baino anitzez gehiago dela. Gaiak zeri buruz eta nori ematen ditugun jakitea arras garrantzitsuak iruditzen zait. Helburu horiekin inertzia batzuk aldatzeko lagungarri izan daiteke gaia bera.

Gai zehatz batekin entzulea irriz lehertzea nahi genuke, bertsolariari gaian sakontzeko hautua eman edo ariketa berriak txertatzeko balio digu gaitegiak. Ideia bat ez delako deus intenziorik gabe. Intentzioa gehitzen diogularik ideiarri, gai bilakatzen da. Orduan, gaia ez da neutroa izaten ahal. Neutroz mozorrotu daiteke, baina gai batek beti intentzio bat ukanen du, bortxaz. Gaia arrakastatsua izan dadin, bere formulazioa eta nabarmendu nahi dugunari garrantzia nola eman jakitea da gakoa. Saioaren lekua, bertsolariak nor diren eta zer motatako entzulea izanen dugun beharrezkoa da kontutan hartzea, saioak arrakasta izan dezan. Batzuetan lortzen dugu; bertze batzuetan ez.

Gai-jartzailea taldearen parte da. Taldea da bertsolariek eta gai-jartzaileak osatzen duten oholtzako pertsona multzoa. Bertsolariekin ditugun harremanek lagun dezakete saioaren doinua bideratzen. Haiek ez badira ongi senditzen, gu ere ez. Eta gu ez bagara ongi senditzen, haiek ere ez. Mintza gaitezen, talde gisa ditugun kezkez, sentsazioez eta gai batzuek eragin dezaketen minetz...

Bukatzeko, otoi, taldearen parte garenez, ez ahantzi gai-jartzaileon izenak saioen afixetan!


Maite, hiri hitza, nolakoa dun bertsolari izatea Deustun? Zer harreman mota izaten dun bertsolaritzarekin?

# Koplak

## Ahostegunak eta Ahots Baten

Aurten ere ahozko kultur diziplinak elkartzen dituen Ahostegunak eta Ahots Baten ekimenetan lagunduko du Bertsozale Elkarteak. Mintzolaaren egitasmoari jarraipena emanez, Euskaltzaindiak antolatu ditu: azaroko ostegunetan izango da Ahostegunak eta abenduko azken astean Ahots Baten. Izen-ematea eta gainerako informazioa: [www.euskaltzaindia.eus/mintzola](http://www.euskaltzaindia.eus/mintzola) atarian.

## Poto-Finixa



Eseri. Pentsatu. Bota.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Azaroaren 4an manifestazioa Bilbon

Kontseiluaren deialdiarekin bat egiten du Bertsozale Elkarteak ere, eta dei egiten dugu *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* leloa izango duen manifestazioan parte hartzeko: azaroaren 4an, Bilboko Euskaldunatik 17:00etan abiatuta. Euskararen normalizazioaren kontrako epai sortarekiko desadostasuna aldarrikatzea da helburua.

**TEILATUPEAN**

Haurren bertso antzerki BERRIA

Kontratazioarako [marketina@lanku.eus](mailto:marketina@lanku.eus) helbidera idatzi edo 675.716.472 telefonora deitu

PUBLIZITATEA